



Idatzi honen bidez, gonbitea egiten dizuegu *Gatazkaren ondorioak emakumeengan eta hauen ekarpena bake prozesuari* izenburu duen Gogoetabidearen (Foro Sozial Iraunkorreko genero lan taldea) eskutik, “Emakumeen egia aitortu. Nik sinisten dizut” ekimenean parte hartzeko. Abiapuntu gisa kokatzen dugu ekimen politiko bat egitea, urteetan sinesgarritasunik eman ez zaion biolentzia matxistaren askotariko aldaerei, emakumeen arteko konplizitatez, aitortza egiteko.

Gure herrian, “euskal gatazka” deiturikoa beste biolentzia batzuekin elkargurutzatuta egon da, artean, euskal emakumeen bizitzetan, askotariko inguru eta egoeretan, ikaragarri eragin duen indarkeria matxistarekin.

Apirilaren 8an, ETaren armagabetze ordenatu eta erabatekoa ondoren, Foro Sozial Iraunkorrak bultzatu nahi du Armagabetze, Desmobilizazio eta Birgizarteratze (ADB -gazteleraz, DDR deiturikoa-) prozesu bat, betiere, “Bertakotutako ONUko Estandarren” baitan. ADB horren testuingurua baliatuta, bakearen eraikuntza kolektiboan, emakumeok bizi izan ditugun biolentzia matxisten aldaera desberdinak jasotzea, entzutea eta aitortzea ezinbesteko urratsa dela iruditzen zaigu. Hori da hain justu ere, Foro Sozial Iraunkorreko zehar-ildoetako bat.

Proposamena ekimen bati hasiera ematea da eta horren abiapuntua izango den ekitaldira gonbidatzen zaituztegu, urriaren 8an, 12.00etan, Bilboko OAL Bilbao Musikan (Solokoetxeko lorategia) egingo dena. Bertan, hainbat emakumek euren testigantzak kontatuko dituzte eta bertan, entzuketa eta aitortza kolektibo bat irudikatu nahi dugu; erreparazioa eta justiziaren bidean, lehen urratsa gertatutako zalantzan ez jartzea eta sinestea, finean, aitortza egitea baita.

### **Hori horrela izanik, honakoak dira ekimenaren helburuak:**

- Azken 50 urteetan, indarkeria matxista desberdinak bizi izan dituzten emakumeak elkartzeko; sinesgarritasuna emateko; eta emakumeen egia, justizia eta aitortza egiteko abiapuntu izan nahi du ekimenak. Horretarako, bertan bilduko ditugu askotariko biolentziak bizi izan dituzten emakumeak, hala nola: harreman sexu-afektiboa indarkeria, laneko sexu-jazarpena, gerra bortxaketa, indarkeria lesbofobia, ETaren biktima baten senidea eta irain edota eraso sexistak jasandakoa, tortura sexista, errefuxiatua, sexu abuxuak...
- Indarkeria sexistaren askotariko adierazpenak bizi izan dituzten emakumeak biltzea, elkarri aitortzea eta sinesgarritasun ekintza egitea – kontuan hartuta, askotan, emakumeen hitza eta kontakizuna zalantzan jarri dela-
- Emakumeen arteko elkartasuna sustatzea (emakume guztion artean) eta emakumeen parte-

hartzea bultzatzea.

- Bakearen eraikuntza kolektiboan oinarritzkoa da jendartean dauden askotariko indarkeriak aitortzea, eta ez soilik gatazka armatuari lotutakoak.
- Behin, ekitaldi politiko hau eginda, asmoa litzateke herrietara zein auzoetara zabaltzea. Horretarako, lema berdina erabiliz askotariko ekintzak sustatu nahi genituzke. Horrela, aitortza hori ahalik eta zabal, plural eta inklusiboena izan dadin.

*Bertan parte-hartzeko gonbidapena egiten dizuegu, emakumeen arteko elkartasuna irudikatu dezagun, emakumeontzako justizia eta erreparazioa egungo herri prozesuan aintzat hartua izan dadin, eta bakegintzan urratsak eman ditzagun. Gonbidatuta zaude, zaudete (gonbidatu zure eragile, auzo, bizilagun...)! Irudikatu dezagun emakumeen arteko elkartasun olatu bat, "Emakumeen egia aitortu: nik sinesten dizut" ozen adierazteko.*

### **Ekitaldiaren egitura proposamena doakizue:**

#### **Ekitaldiaren egitura:**

1. Gogoetabidean-eko lan taldeko kideek hartuko dute hitza. Ekitaldiaren arrazoiak eta gonbidatuak aurkeztuko dituzte lan taldeko kideek eta aurkezleak.
2. Bortizkeria desberdinak bizi izan dituzten emakumeek hartuko duzue hitza, laburrean, zuen testigantza kontatuko duzue (5-7 min). Parte-hartzaileak hauek izatea nahiko genuke:
  - Harreman sexu-afektiboetako indarkeria jasandakoa (Mujeres al Cuadrado)
  - Laneko sexu-jazarpena
  - Gerran bortxatutako baten senidea.
  - Tortura sexistak
  - Sexu abusuak
  - Eraso lesbofobia jasandako emakume bat
  - ETAren biktima baten senidea eta irain edota eraso sexistak jasan dituen.
  - Euskal Herrian bizi den emakume errefuxiatu bat.
  - Preso sozial ohia.
3. Azken hitzartzea eta itxiera. Justizia, erreparazioa eta berriro gerta ez dadin bermeen inguruan arituko da ikuspegi feministatik.
4. Dantza batekin amaiera emango genioke ekitaldiari.

**MILA ESKER BIHOTZEZ,**

